



2022/2023 denboraldia

## 13. ZIRKULARRA

### **GIZONEZKOEN GORENGO MAILAKO LIGA TXAPELKETA**

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Gorengoen Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

#### **1. KLUB PARTAIDEAK**

##### **GRUPO 1 TALDEA**

- 1 UNIVERSIDAD DE DEUSTO CAMPUS S
- 2 OSTADAR S.K.T.
- 3 ROTETA C.D.
- 4 SANPEDROTARRA F.E
- 5 AXULAR K.K.E
- 6 HONDARRIBIA F.E
- 7 SANTO TOMAS LIZEOA K.E.
- 8 OIARTZUN K.E. "B"
- 9 USURBIL F.T.
- 10 ORIOKO F.T.
- 11 HERNANI C.D. "B"
- 12 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 13 TOURING K.E. "B"
- 14 EUSKALDUNA S.D.
- 15 REAL UNION CLUB SAD "B"
- 16 ALLERRU K.E.

##### **GRUPO 2 TALDEA**

- 1 ILINTXA S.D.
- 2 MONDRAGON C.F. "B"
- 3 URKI C.D.
- 4 ANTZUOLA K.E.
- 5 ARETXABAETA K.E. UDA "B"
- 6 IKASBERRI K.E.
- 7 DANENA K.E.
- 8 TOLOSA C.F. "B"
- 9 GETARIAKO KETA BABYAUTO
- 10 BEASAIN S.D. "B"
- 11 BILLABONA K.E.
- 12 BERGARA K.E. "B"
- 13 ELGOIBAR C.D. "B"
- 14 SEGURA GOIERRI K.E.
- 15 ANAITASUNA C.D. "B"
- 16 ORDIZIA K.E.



## **2.LEHIAKETA SISTEMA**

Gorengo Mailako liga txapelketa **32 taldek** osatzen dute, 16 taldeko bi multzotan banatuta. Fase bakar batean jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (30 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuak finala jokatuko du zelai neutralean, mailako txapelduna izendatzeko.

Erregionalen Ohorezko Mailara igoko dira **goragoko kategoriako talderen batekin mendekotasun edo filialtasun harremanik ez duten multzo bakoitzeko lehen sailkatuak**. Bigarren sailkatuek, beharrezkoa izanez gero, 3-4 postua jokatuko dute, kanporaketa bikoitzean, zelaiaren zozketa egin ondoren, Erregionalen Ohorezko Mailan egon daitezkeen hutsuneen kasuan lehentasun ordena zehazteko.

Erregionalen 1. Mailara jaitsiko **dira multzo bakoitzeko azken hiru sailkatuak (3x2 = 6)**.

## **3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezkoko egongo dira aulkian.

## **4.ORDUTEGIA**

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

## **5.DIZIPLINA ARAUDIA**

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.



## **6.XEDAPEN OROKORRA**

“Koltxoi” mailaren kontzeptua mantendu egiten da, eta beraz maila honetan egon daitezkeen plazak ondoren aipatzen den eran eta hurrenkeran beteko dira:

- a) Erregionalen 1. Mailako talde bat igota.
- b) Gorengo Mailatik jaitzitako taldeen artean ondoen sailkatu denaren jaitziera saihestuta.
- c) Eta horrela behin eta berriro.

## **7. BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2022ko iraila**

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA**  
**FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL**

  
**Iñigo Letamendi Artetxe**  
**Idazkari Nagusia-Secretario General**